



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2022KO AZAROAREN 30EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko abenduaren 30ean arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia, Esther Lacastaren lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, Xabier Azpiroz, Ricardo Arangoa, Julen Beunza eta M^a Mar Ansorena.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Azaroaren 30eko ohiko batzarreko akta da deialdiarekin batera, bildutakoek irakurri ondoren aho batez erabakia hartzen dute.

2.- Alkate ebazpenak

-2022/96 alkate ebazpena onartuz 2022 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea NA9902AG matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 15,15 eurokoa da.

- 2022/97 alkate ebazpena Baimena emanaz Maria Orega Marcosi, Errekaondo 2.8 jabeen Elkargoaren izenean, Aizarozko herrikoetxeko gela txikia erabiltzekoa, azaroaren 18an, 19:00etatik, 21:00etara auzokideen bilera bat egiteko.

- 2022/98 alkate ebazpena onartuz Suana Orduna Rodriguezek aurkeztutako aitorten arduratsua eta dokumentazio gehigarria, Aizarozko 10. Poligonoko 74. Lursailean dagoen merkataritza lokalaren egokitzapenerako eta hortaz EIOZren likidazioa egin 50.135,79 euroko aurrekontua kontutan hartuz.

- 2022/ 99 alkate ebazpena obra baimena ematea Telefonica de España SAU Itsasoko 4. Poligonoko 471. Lursailean dagoen telefónica linearen zutoia aldatzea. 2022/100 alkate ebazpena baimena ematea Miguel Loidi Goñi eta Peio Mikel Dorai Bengoetxeari Udabeko 1. Poligonoko 84. Lursailetik 5.418 m2 bereizi eta gelditzen diren 6.321,88 m2ak, polígono bereko 30. Lursailera gehitzeko.

- 2022/101 alkate ebazpena Baimena ematea Ernaizu S. Coop-i, abenduaren 4an Apeztegi berriko bigarren solairuko erabilera anitzetako gela erabiltzeko, mikologian adituak diren talde bati bazkaria emateko.

- 2022/102 alkate ebazpena onartuz Arraratsko 14. Poligonoko 272. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua eraberritzeko dirulaguntza eskaera, 740,47 eurokoa.

- 2022/103 alkate ebazpena onartuz Goiener Kooperatibak aurkeztutako proposamena eta aurrekontua, udal eraikinetan (eskola eta polikiroldegia) eguzki plakak jartzeko bideragarritasuna aztertzeko, 1.672,70 eurokoa BEZ barne.

- 2022/104 alkate ebazpena Baimena emanaz Amaia Calvo-ri Aizarozko Kultur etxeko areto nagusia erabiltzeko Abenduaren 14an, asteazkena, 15:30etatik 20:30etara, beste artisauekin batera azoka bat egiteko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.- 2022ko aurrekontu aldaketa. Hasierako onespina

Ogasun batzordean aztertu da aurrekontu aldaketa honen beharra, kontutan hartuta gastatu dela Orveko partidaren bikoitza, anatzaren denez hasierako kuota kalkulatzekoan akatsa izan zuten eta ondoren kuotaren berrikuspena bidali, osotara 16883,91 euroko ekarpena egin zaio Orveri, hortaz aurrekontu aldaketa onartu beharra dago, 270/1998 Foru Dekretuaren 41. artikulua jarraituz. Bertan arautzen da aurrekontuan hasierako aurreikuspenen kopurua aldatu gabe, kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketaren bitartez, beste poltsa batean erabilgarria dagoen soberakina: erabili ahal da, aipatutako partidaren kreditua hornitzeko.

-2022/3 aurrekontu aldaketa.1.1.2 poltsan dago Orveko ekarpenaren partida. Aurreikuspena 8436 eurokoa zen aurrekontua onartu zenerako jakinarazi zutelako zenbateko ekarpena zegoion udalari baina orain adierazi dute kalkuloak gaizki egnak zeudela eta hortaz osotara 16883,91 euro dira ordaindu direnak.

Igoera hau aurrekontua igo gabe, kreditu transferentzi bidezko aurrekontu aldaketarekin finantzatu litzake, 1.1.5 poltsan dagoen soberakinarekin. Poltsa honetan dagoen partida industriaguneko urbanizazioarena da eta guztiz ez da gastatutako aurreikusitakoa.

.Hau kontutan hartuta eta aho batez, bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Hasierako onespina ematea 2022/3 aurrekontu aldaketari, 1.1.2 poltsan dagoen Orveko ekarpenaren partidaren aurreikuspenak osatzeko, 16.883,91 euroraino igoz, hori baita onartutako eta ordaindutako gastua.**
- **1998/270 Foru Dekretuaren 41. Artikulua jarraituz, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, 15 egun baliodunen epean alegazioak jartzeko epea irekiz.**

4.- Mendialdeko behatoki sozio-ekonomikoan parte hartzeko erabakia.

Alkateak azaltzen du alkate ebazpen bidez onartu zela Behatoki sozio ekonomikoan parte hartzea baina erabakia batzarrean hartzea ere eskatu dute Cederna Garalurretik. Adierazten du behatokiaren helburua dela Mendialdeko aktibazio planaren kudeaketa egitea eta bai eskualdeko udalak bai elkarte eta erakunde pribatuak osatzen dutela.

Azaroaren 23an egingo den bileran eratuko da behatokia. Behatokiak egingo dituen bilera guztietan parte hartzeko konpromezua hartu behar du udalak, bertan egingo direlako Mendialdeko aktibazio planaren hausnarketak, eztabaidak, azterketak eta erabakiak hartu.

Hau kontutan hartuz, Basaburuko Udaleko batzarrak aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen du:

- **Cederna Garalur elkarteak eginiko Mendialdeko aktibazio planaren inguruko hausnarketa, eztabaida, azterketa koordinazio eta erabaki foro nagusia den Mendialdeko Behatoki Sozio Ekonomikoan parte hartzea.**
- **2022-2023 aldian deituko diren Mendialdeko Behatoki Sozioekonomikoaren bileretan parte hartzeko konpromisoa hartzen du udalak.**
- **Erabaki hau Cederna Garalur elkarteari jakinaraztea.**

5.- Aizarozko soroen esleipen prozesuari hasiera ematea.

Urtarrilaren 1ean bukatzen zaio aurreko esleipendunari kontratua... berriro ta enkantea egin behar da eta horretarako lehenik baldintza plegua onartu.

Irakurtzen dira aurreko enkanteko esleipen prozesurako erabili zen plegua eta eztabaidatzen dira aldaketa batzuk txertatzea.

Baldintza pleguaren ardatz nagusiak hauek izango dira:

- Basaburuko abeltzaina izatea eta Basaburuko ustiapen erroldan egotea.
- Larreak zuzenean ustiaturko dira, eta ezin izango da azpierrentamendurik egin. Salbuespen gisa, udalari eskaera arrazoitua egin ondoren, larreen esleipendunari besteren abereak sartzeko baimena eman ahal izango zaio, larre guztiak aprobetxatzeko, urtaroko arrazoiengatik larreen gainprodukzioa dagoenean. Kasu honetan ere abereak, esleipendunaren baldintza berberak betetzen dituen abeltzain batenak izan beharko dira.

- Errentaren prezioa 2.750 euron aterako da.
- Aurkezteko epea urtarrilaren 20an bukatuko da, eguadiaren 13:30etan.

Baldintza plegua kontzejuen alkateen bidez zabalduko da eta udaleko web orrian, udal tabloian jarriko da ere.

Hortaz, bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Onartzea Aizarozko soroen esleipena arautuko duen baldintza plegua, proposamenak aurkezteko epea urtarrilaren 20a arte finkatuz.**

6.- 2961 GGP autoa. Hondakin solido izendapena.

Alkateak irakurtzen du guardia zibilaren txostena, Aizarozko kalean egoera txarrean dagoen autoaren inguruan, hainbat hilabetez geldirik baztertua dagoela dirudi.

Hondakin solido tratamendua eman beharko litzaioke 2011/22 Lurzoru zikin eta hondakinen Legearen 42 eta 43. Artikuluetan zehazten den moduan.

42. artikulua. Hondakinen arloko erantzukizunaren irismena. Hondakinek erantzule bat izango dute beti ekoizpenetik eta kudeaketatik eratorritakoak dira; ekoizleari edo beste edukitzaile bati dagokio ezaugarri hori. edo hondakinen kudeatzaileari, Lege honetan eta bere arauetan aurreikusitako baldintzetan.

garapena. Subjektu horiek errepikapen-akzioak gauzatu ahal izango dituzte, baldin eta beste pertsona batzuen legezko edo kontratuko ez-betetzeen ondoriozkoak izan badira. fisikoak edo juridikoak.

43. artikulua. Zaintzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumenak eta bitartekoak. 1. Legea behar bezala betetzen dela zaintzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak

Lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan ezarritakoa betetzeko, agintariak dagokion eskumen-eremuan, hondakinen eta herritarren segurtasuna. Ikuskapen-funtzioak honako hauen bidez gauzatu beharko dira: behar bezala aintzatetsitako ikuskapen-kidegoak, aplikazioa.

2. Agintari eskudunak giza baliabideez eta baliabide materialez hornituko dira. beharrezkoak diren zaintza, ikuskapen eta kontrol betebeharrak betetzeko. baimen, komunikazio eta ikuskapenen araubidetik eratorritakoak. araua.

3. . Zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-funtzioak honako hauek gauzatu ahal izango dituzte: behar bezala aintzatetsitako erakunde laguntzaileen laguntza, dagozkien arauen arabera.

aplika

daitezkeenak.”

Legeak ulertzen du isun larria dela

Legeak ulertzen du isun larria dela

c) Ez diren hondakinak kontrolik gabe uztea, isurtzea edo ezabatzea. arriskutsuak, pertsonen osasuna arrisku larrian jarri ez bada edo ingurumenari kalte edo narriadura larria eragitea. Hortaz hasiera emateko prozedurari, 1 pausoa da jakinararazi jabeari zabortegira eramateko, eta dagozkion alegazioak jartzeko, 2015/39 Administrazio Prozeduraren 59.5 artikulua arabera 10 egun baliodunen epean. Epe horretan ez badu eramaten hondakin solido izendatzeko erabakia hartu beharko du udalak eta zabortegira eraman beharko luke eta ondoren gastua kobratu jabeari.

Hau kontutan hartuta bildutakoek jasotzen dute informazioa eta jabeari autoa kentzeko eskaera bideratzeko erabakia hartzen dute.

7.-Taxi baimenaren esleipena. Baldintza plequaren onespena.

Jada udalak onartu zuen taxi baimenaren arautegia, iraileko batzarrean behin betikoz onartu ondoren azaroaren 2ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen araudia.

Orain plaza enkantera atera behar da.

Horretarako baldintza plegua prestatu da.

Alkateak irakurtzen du zinegotzien batzordean egin eta aztertu den dokumentua eta bildutakoek aho batez onartzen dute hortaz taxi baimena esleipenera ateratzeko plegua. Bestetik dokumentazioa aurkezteko epean behin Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren 2 hilabetekoa izanen da.

Balorazio mahaia ondoren zehazten direnak osatuko dute:

- Esther Lacasta Lehendakaria eta Ricardo Arangoa, honen ordezkia
- Santos Etxegia zinegotzia eta Xabier Azpiroz honen ordezkia
- Julen Beunza zinegotzia eta M^a Mar Ansorena honen ordezkia

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gain, irratian eta kontzejuetako alkateen bidez zabalduko da iragarkia behin argitaratzen denean.

8.- 2023ko tasen onespena.

Ogasun batzordean aztertu dira hurrengo urterako tasak eta bertan finkatu dira eta hau da batzarrean eztabaidatu eta onartzeko proposamena, kontutan hartuz kontribuzioaren tasa legera egokitu behar dela, legeak gutzientekoa 0.25 etan dauka finkatua eta udalak 0.242-etan.

Hauek izango lireteke onartzeko tasa eta zerga tipoak aipatu bezala ogasun batzordean aztetu ondoren:

URAREN TASAK:

- Ur kontsumoa 0.291 €/m³
 - Ur hornidura kuota: 21.30 euro (seihilabeteko)
 - Saneamendu kuota: 21.30 euro (seihilabeteko)
 - Ur lotura 283,79 euro.
- Hiri kontribuzioa; 0.249
- EIOZ zerga %5ean finkatzen da. Aurreko urteko balorea mantentzen da.
- 1.20 eko erakuslea ezarri JEZ zerga kobratzeko
- Lurren baloreen igoseraren zerga, 2019ko foru legearen arabera, mantentzen dira Nafar gobernuak onartutakoak.

Gainbalioarekin lotutako karga, %25ean jarraitzea adosten dute bildutakoek.

AIZAROSKO EPAITZAK: PREZIO PUBLIKOA Finkatuko da gastua sortzen denean, eta pisuaren arabera kobratuko.

AIZAROSKO BARATZEN ERABILPENA: Hitzarmenean sinatu bezala hasierako 13 euro baratzeko KPI-a igotzen zaie, hots 2023. Urtean 14,88 euro baratza bakoitzekori KPI-a igoko zaio (martxoko KPI-a dagokie).

HIRIGINTZA TASAK

Azkeneko urtetan ez dira tasak aldatu ez igo eta aurten eguneratzea adosten dute bildutakoek modu honetan;

- Obra baimenen tramitazioa:

< 5000 aurrekontua: 55,00 €

>5000<15000: 75,00 €

>15000<30000: 150,00 €

<30000<60000: 225,00 €

<60000<150000: 280,00 €

>150000<300000: 375,00 €

<300000<600000: 450,00 €

Eranskina, zuinketa akta eta beste batzuk. 80,00 € (Testua aldaketa Eranskina, zuinketa akta eta kontsultak 70,00€.

- Urbanizatu ezin den lurrean eraikitze baimena: 120 €			
- Sailkatutako jarduera baimena edo aitortpena arduratsua : 150 €			

4D eranskineko jarduerak: 185 € Ikuskaritza bisitak: 375 €			
- Lehen erabilera baimenak, obra bukaerak: 250 €			
- Irekiera baimena edo aitopen arduratsua: 265 €			
4A, 4B eta 4C eranskinetako jarduera sailkatuak 470 € 4D eranskineko jarduerak: 275 € Ikuskaritza bisitak: 375 €			
Eranskina: 80 €			
- Lursailen zatiketa baimenak: 215 €			
- Ikerketa edo memoriatarako hirigintza kontsultak, xehetasun azterlanak eta reparzelazio proiektuak: 225 €			
- Udal Planaren aldaketa zehatzak: 260 €			
- Hirigintza arauen aldaketa, plan partzialak : 335 €			
- Bestelako informeak, alegazioak: 200 €			

JAUN SARATSKO POLIKIROLDEGIKO ARGIA ERABILTZEKO TASA . Orain harte hauek ziren kobratzen ziren tasak:

- 2 euro/ordua frontoiko argia erabiltzeko.
- 3 euro/ordua kantxako argia erabiltzeko

- 5 euro/ordua polikiroldegi guztiko argia erabiltzeko (frontoia eta kantxa).

Aurreko urtean aldatu zen eraikinean sartzeko sistema eta erabiltzaileek ordaindu behar dute txanpon bidez argia pizteko, horregatik ez dira polikiroldegiko tasak kobratuko.

UDAL ERAIKINETAN DAUDEN GELAK ERABILTZEKO TASA

Iharduera puntualak: Hiru ordu baino gutxiago, 10 euro. Hiru ordu baino gehiago, 20 euro.

Aldizkako iharduera, 6 euro sesio bakoitzeko, hiru orduko ihardueretarako para hiru ordutik aurreragoko ihardueretarako, 12 euro sesio bakoitzeko.

Egun osoko iharduerak: 20 euro.

Bildutakoek aho batez onartzen dituzte 2023ko tasak eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan daitezen agindu.

9.- Mozioak.

Alkateak adierazten du abenduaren 20an Cortesko bizilagunaren erailketa inguruan, Nafarroako Udallerri eta kontzejuen federazioaren bitartez hango udalak ondoren zehazten den adierazpena onartu zuela eta bideratu du beste udaletan ere onartu eta gaitzetsi dezaten erailketa matxista. Gaztelaniaz bidali da adierazpena eta ondoren transkribatzen dena da alkateak irakurtzen du eta moldatu :

*“Visto el asesinato cometido el día 20 de diciembre de 2022 en Zaragoza contra María del Carmen Rincón Huerta se propone al Pleno de la Corporación la adopción del siguiente acuerdo:
Primero.- Aprobar la Declaración Institucional:
emitida por el Ayuntamiento de Cortes en relación con el asesinato de la vecina de su municipio María del Carmen Rincón Huerta,.*

El Ayuntamiento de Basaburua, a través de esta convocatoria, quiere mostrar su rechazo

y condena a cualquier forma de violencia contra las mujeres, su apoyo y solidaridad a la familia y su compromiso por trabajar para que se haga efectivo el derecho de las mujeres a vivir una vida libre de violencias.”

Bildutakoek hortaz bat egiten dute adierazpen instituzional honekin eta alkateak adierazten du azken bi astetan erailketa gehiago izan direla, Euskadin eta estatu mailan eta denak gaitzesten dituela Basaburuko Udalak ere.

Erabaki hau Cortesko udalari jakinaraztea agintzen dute bildutakoak.

10- Batzordeen informazioa.

Garapen Batzordea. Riki Arangoak ematen du informazioa.

Mendialdeko Elikadura mahiaren memoria aurkeztu zuten abenduaren 20an bilera. Aldiz urtarrilaren 10ean bilera deitu dute Agenda 21eko dirulaguntzen inguruan hitz egiteko.

11.- Informazio orokorra.

-Euskarabideko laguntza jaso da 5.800 eurokoa izango da 2022. Ekitaldirako. Bertan sartu da bai UEMAREN kuota, bai ostalariekin egin zen ikastaroa bai udalak antolatutako hainbat antzerki eta ipuin kontalari.

-Osasun programen laguntzen ordainketaren onespena. Osasun Departamentutik jakinarazi dute 3263 euroko laguntza ordainduko dutela adinduen ekipamendu programarako eta 1539 euro gazte, adindu eta emakumeen programetarako.

12. Errege-galderak

Ez dira egin

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez arratsaldeko 20:15 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.